

Matzaga

etxebizitza

Aldacrak: Matzagaerdikoa
Ahozkoa: Mátza

43°10'4"

2°34'39"

Berriz Irudian / T. Angoitia

“... una casería titulada Mazaga... en la cofradía de Eytua de la Anteiglesia de Berriz, es de una habitación compuesta de portalada, cocina, dos cuartos y cuadras en el piso bajo, y en el superior, de sala, cuatro cuartos, camarotes y pajares, tiene además un horno con tejabana y al frente una arnaga o accesoria... contiene de planta solar con inclusión del zaguan... ciento cuarenta y cuatro estados equivalentes a cinco áreas y cuarenta y ocho centiareas...”
DJE 5/125 or. (1884)

Bizitza bakarreko baserri honen gaineko lehen aipamena Bizkaiko su-erroldean aurkitzen dugu: *Masaga* (1704). Gerora, aldaketa gutxi aurkitzen dugu baserri honi erreferentzia egiterako orduan. Horrela, 1859an *Mázagas* agertzen da urte horretako udal-izendegian, inguru horretan aurkitzen ditugu hiru baserri erreferentzia eginez: *Matzagagoikoa* (**Ikus Matzagagoikoa**), *Matzaga* eta *Matzagabekoa* (**Ikus Matzagabekoa**). Hiru baserri horietatik honako hau erdian kokatzen da, hortik 1905ean *Mazaga*

Erdicua (1905, BUA, 40. or.) moduan agertzea. Auzotarren artean, ahozko transmisioan *Mátza* nagusitu da.

Baserri-etxe ederra dugu, neurri handikoa. 1829an obra handi bat jasan zuen, lehenengo solairuko bi leihoen artean dagoen datak argi uzten duen moduan. Hala ere, teilatuaren gailurrarekiko simetria eza deigarria da, eta horren arrazoia izan daiteke XIX. mendeko lanekin gertatuko zen aldaketa nabarmena, etxea handitu zutenean. Aipatzeko moduko beste

toponimia

1704ean etxe hau Masaga moduan ageri da eta 1825era arte ez da Mazaga ageri. Horren ondorioz pentsatu behar dugu jatorrizko izena ez dela Matzaga, Matsaga baizik. Hau horrela balitz pentsa genezake osagaiak mahats landare izena eta lekua edo ugartasuna adierazten duen -aga atzizkia direla.



Berriz Irudian / T. Angoitia

ezaugarri batzuk ere baditu. Esaterako, ezkerreko gortzeko baoak maila baxuagoan daude, eta lehenengo solairuko hormak egurrezko eta adreiluzko armadurarekin jasoak zituzten, egurra adreilu grapatuekin tapatuta badute ere, *Isuntza*, *Isuntzabekoa* eta *Berrizbeitia* etxeetan legez. Sarrera gisa atarte zabala dauka, arku eskartzano baten bidez egiten dena. Gainean, bi leiho ditu, ganbarako txikitxoaren azpian, ardatza

izan daitekeena markatuz. Egurrez eta adreiluz gain, hormetan erabilitako harria ohikoa da, hots, harlangaitza, eta harlandua baliatu zuten, aldiz, kantaletan eta bao-inguru guztietan. Lehenengo solairuan, honako hau dioen inskripzioak bat dago bi orri zintzilik dituen gurutze baten alde bietan: “ANO DE / 1829”.